

EBAZPENA 10E/2025, apirilaren 15ekoa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, "Euskara helduei irakasteko laguntzak: 2024-2025" deialdiko bigarren ordainketa ebazten duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-0617-2024-000000**

UNITE KUDEATZAILEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 / Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak apirilaren 19ko 46E/2024 Foru Aginduan onetsita eta abenduaren 11ko 113E/2024 Ebazpenaren bitartez esleitutako deialdia dela eta aurkeztutako ordainketa proposamena ikusirik. Aurkeztutako txostenak justifikazio-dokumentuen baliagarritasuna eta horien gainean egindako balorazioa jasotzen du.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak ordaintzea, laguntzaren bigarren zatian:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Importe
0011-0617-2024-000001	G31240005	ASOCIACION CULTURAL BORTZRIETAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/4819/334104	15.482,16
0011-0617-2024-000006	F95222816	EUSKARAZ KOOP S	G/B30002/4819/334104	504.752,67
0011-0617-2024-000007	G31246911	ASOCIACION CULTURAL DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA	G/B30002/4819/334104	7.361,03
0011-0617-2024-000008	G31238199	ATARRABIAKO GAUESKOLA KULTUR ELKARTEA	G/B30002/4819/334104	6.567,92
0011-0617-2024-000009	G31263072	ASOCIACION LEITZAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/4819/334104	16.201,76
0011-0617-2024-000010	G31762529	FUNDACION ARTURO KANPION	G/B30002/4819/334104	102.300,68
0011-0617-2024-000011	G31941008	FUNDACION SAHATS	G/B30002/4819/334104	73.629,56

2.Ebazpen hau jakinaraztea eskatzaile bakoitzari, eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-hartzailetza Delegatura, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta haren Kontabilitate Zentrora, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera, baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera ere, bidezko ondorioak izan ditzan.

3.Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2025eko apirilaren 15ean.



EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga

